Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2025-04-04
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-04-10
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00033/2025 - Data/Fecha: 2025-04-10
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-04-10
GZko 15.gaia onartuta - Aprobado, asunto 15) de OD



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** 2025eko ekitaldiaren kontura emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA** por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos en materia de igualdad de mujeres y hombres con cargo al ejercicio 2025.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak bere helburuen estrategikoen artean dauka emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea. Hiru esku-hartze ardatzek egituratzen dute, gobernamendu onerako neurriekin batera, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana (2021-2024), eta haietan jartzen da bereziki arreta egitasmo horretan: indarkeria matxistarik gabeko bizitzen alde lan egitea, ahalduntze feminista eta berdintasuna garapen iraunkorrean.

La Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene entre sus objetivos estratégicos la promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Son tres los ejes de intervención que, junto con las medidas para el buen gobierno, conforman la estructura del VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia (2021-2024), y donde se fija especial atención: trabajar en favor de vidas libres de violencia machista, el empoderamiento feminista, y la igualdad en el desarrollo sostenible.

Helburu horiek lortzeko, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat dauka lankidetza estua sustatzea administrazioaren eta gure lurraldean arlo horretan esku hartzen duten era askotako gizarte-eragileen artean.

Para lograr estos objetivos, la Dirección General para la Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad considera necesario promover una estrecha colaboración entre la administración y la diversidad de agentes sociales que intervienen en el territorio.

Ildo horretan, funtsezko protagonismoa hartzen du, berdintasuneranzko aldaketa sozialean, irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarteen eta erakunde mistoen lanak.

En este sentido, el trabajo de las asociaciones de mujeres y entidades mixtas sin ánimo de lucro adquiere un protagonismo esencial en el cambio social hacia la igualdad.

Horretarako, beste tresna batzuez gain, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak dirulaguntza lerro batzuk ditu, haien bitartez emakumeen ahalduntzea, desberdintasunak ikusaraztea, rolak eta estereotipoak gainditzea eta abar bultzatzeko.

Para ello, además de otros instrumentos, la Dirección de Igualdad cuenta con varias líneas subvencionales buscando favorecer el empoderamiento de las mujeres, la visibilización de las desigualdades, la superación de roles y estereotipos, etc.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Emakumeen elkarteei eta erakunde mistoei zuzendutako dirulaguntza-lerroetariko bakoitza profil desberdin bati dagokio, baina, denak dekretu berean elkarturik, batzuen eta besteen arteko osagarritasuna sustatzen dute, eta horrek sendotzen laguntzen ditu bai elkarteak, bai haiek garatzen dituzten ekimen puntualak eta bai inbertsio handiagoa eta baliabide sendoagoak eskatzen dituzten proiektu eraldatzaileagoak ere.

Horretarako, bada, dekretu hau bost kapitulutan egituratu da. Lehenengo kapituluan, hurrengo lau kapituluetarako xedapen erkideak ezartzen dira, eta kapitulu horietan, hain zuzen ere, araudi honen lau xedeak zehazten dira:

- Xedapen orokorrak (I. kapitulua).
- Emakumeen elkarteak indartzeko dirulaguntzak (II. kapitulua).
- Emakumeen elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko (III. kapitulua).
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko (IV. kapitulua).
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburutzat duten proiektu eraldatzaileetarako dirulaguntzak (V. kapitulua)

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eginkizunak betez, dirulaguntzen oinarriak eta deialdia arautzen ditu, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideen arabera.

Foru-dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan biltzen dira (dekretu horren bidez Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Oinarri eta deialdi hauek egiterakoan, kontuan hartu da zer xedatzen duen 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak.

Cada una de las líneas de subvenciones dirigidas a asociaciones de mujeres y entidades mixtas responden a un perfil diferente pero, todas ellas alineadas en un único decreto, favorecen la complementariedad de unas y otras para apoyar el fortalecimiento de las asociaciones, iniciativas puntuales que éstas desarrollan y proyectos más transformadores que requieren de una mayor inversión y recursos más sólidos.

Para ello, este decreto se ha estructurado en cinco capítulos. En el primer capítulo se establecen las disposiciones comunes a los cuatro siguientes capítulos, en los que se delimitan respectivamente cada uno de los cuatro objetos de esta normativa:

- Disposiciones generales (capítulo I).
- Subvenciones para el fortalecimiento de asociaciones de mujeres (capítulo II).
- Subvenciones a asociaciones de mujeres para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo III).
- Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo IV).
- Subvenciones para proyectos transformadores cuyo objetivo sea la promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo V).

Asimismo, la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de sus funciones, procede a regular las bases y la convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

En la elaboración de estas bases y convocatoria se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Dekretu hau idaztean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.1 b) artikuluaren arabera, foru-dekretu hau salbuetsita dago aurretiko kontsulta publikoaren eta entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak egitetik. Xedapen honen edukiak ez du funtsean aldatzen ordezten duen xede bera duen beste xedapen baten edukia. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 16ko 53/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira 2024ko ekitaldiaren kargura emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia (2024ko maiatzaren 17ko BAO, 95. zk.), proiektuaren aurrerapenaren aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen eta proiektuaren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen mende jarri zen.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren martxoaren 26ko 1828/2025 Foru Aginduaren bidez, foru dekretu hau egiteko prozedura hastea erabaki da, ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 12 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16 eta 17 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa eta kontrol ekonomikoko txostena egin dira.

Arlo horretako eskumenari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginaren, 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta (aurrerantzean, Berdintasunerako Legearen Testu Bategina), 4., 6. eta 27.3 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak sustatzea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak 3. artikuluan jasotzen duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoko

En la redacción del presente decreto se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

En virtud del artículo 26.1 b) del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, este decreto foral está exento de realizar los trámites consulta pública previa y audiencia e información pública debido a que se trata de una disposición cuyo contenido no modifica substancialmente el contenido de otra con el mismo objeto a la que sustituye. Concretamente, el Decreto Foral 53/2024, de 16 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos en materia de igualdad de mujeres y hombres con cargo al ejercicio 2024 (BOB nº 95 de 17 de mayo de 2024) fue sometido a trámite de consulta pública previa del avance del proyecto, así como a trámite de audiencia e información pública del proyecto.

Mediante Orden Foral de la diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad 1828/2025, de 26 de marzo, se ha acordado la incoación del procedimiento de elaboración del presente decreto foral, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio.

Se ha emitido informe jurídico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad e informe de control económico al amparo de lo dispuesto en los artículos 16 y 17 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio.

En cuanto a la competencia en la materia, de conformidad con los artículos 4, 6 y 27.3 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo (en adelante, texto refundido de la Ley para la Igualdad), corresponde, entre otras, a la Diputación Foral de Bizkaia incentivar a las asociaciones a que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, recoge, en su artículo 3, que los principios generales que deben

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

foru-sektore publikoaren jarduera gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak Berdintasunerako Legearen Testu Bateginaren 3. artikuluan jasotakoak dira.

regir y orientar la actuación del Sector Público Foral del Territorio Histórico de Bizkaia son los recogidos en el artículo 3 del texto refundido de la Ley para la Igualdad.

Halaber, 8.2 artikuluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunen artean, honako hauek jasotzen dira: erakundeen arteko partaidetza, koordinazioa eta lankidetza, eta ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lankidetza- eta lankidetza-tresnak garatzea, eta Bizkaiko emakumeen mugimendu feministarekin eta elkarteekin harremanak izateko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta koordinatzea.

Asimismo, recoge en el artículo 8.2, entre las funciones del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las siguientes: la participación, coordinación y colaboración interinstitucional y desarrollo de cuantos instrumentos de colaboración y cooperación sean necesarios para alcanzar los objetivos de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, y el establecimiento y coordinación de cauces de relación y colaboración con el movimiento feminista y asociativo de mujeres de Bizkaia.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru-erakundeen Hautaketari, Antolaketari, Araubideari eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio xedapena onartzeko organoak duen eskumena.

En relación a la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º. 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Ondorioz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta haien testua jarraian datorren ERANSKINEAN txertatzen da.

Artículo Único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.*
Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones a la realización de proyectos en materia de igualdad de mujeres y hombres, cuyo texto se inserta a continuacion en el ANEXO.

XEDAPEN GEHIGARRIA

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Xedapen gehigarri bakarra. *Aurrekontu-izendapenak.*
1. Foru-dekretu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidura honen kontura emango dira: 232114 programa, 0905 organikoan jasoa, 451.00 ekonomikoa, 2017/0064 proiektua. Guztira, 990.000 € izango dira, 2025eko ekitaldian, honela banakaturik:

a) II. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 80.000 euro

Disposición Adicional Única. *Consignaciones presupuestarias.*
1. Las subvenciones que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral se efectuarán con cargo a la dotación presupuestaria del Programa 232114, recogida en el orgánico 0905, económico 451.00, proyecto 2017/0064, por un total de 990.000 €, en el ejercicio 2025, y con el siguiente desglose:

a) Capítulo II. Ejercicio 2025: 80.000 euros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) III. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 260.000 euro
c) IV. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 440.000 euro
d) V. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 210.000 euro

2. Baldin eta foru-dekretu honen bidez araututako proiektuak finantzatzeko izendaturiko funtsak ez badira agortzen, dekretuaren beste edozein kapitulutan proiektu gehiago onartzeko erabili ahal izango dira funtsok, baremazio-batzorde teknikoak proposamena eginda.

b) Capítulo III. Ejercicio 2025: 260.000 euros
c) Capítulo IV. Ejercicio 2025: 440.000 euros
d) Capítulo V. Ejercicio 2025: 210.000 euros

2. En el supuesto de que no se agotasen los fondos consignados para financiar los proyectos regulados mediante el presente decreto foral, éstos podrán ser utilizados para incrementar el número de proyectos a aprobar en cualesquiera capítulos del mismo, a propuesta de la Comisión Técnica baremadora.

## AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. *Arauak garatzeko gaikuntza.*
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretu hau osatzeko edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*
Dekretu hau *Bizkaiko Aldizkari Ofizial*ean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## DISPOSICIONES FINALES

Disposición Final Primera. *Habilitación para el desarrollo normativo.*
Se faculta a la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para complementar o desarrollar el presente decreto.

Disposición Final Segunda. *Entrada en vigor.*
El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua/ Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTINEZ.

Ahaldun Nagusia/Diputada General: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERANSKINA /ANEXO

2025EKO EKITALDIAREN KARGURA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOKO PROIEKTUEI EMANGO ZAIZKIEN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Dirulaguntzaren xedea*

1. Foru-dekretu honen bidez arautzen dira Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia.

2. Foru-dekretu honek dirulaguntza-modalitate hauek arautzen ditu:
a) Emakumeen elkarteak indartzeko dirulaguntzak (II. kapitulua)
b) Emakumeen elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko (III. kapitulua)

c) Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko (IV. kapitulua)
d) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburutzat duten proiektu eraldatzaileetarako dirulaguntzak (V. kapitulua)

2. artikulua. *Erakunde onuradunak*

1. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, erakunde eskatzaileak 21., 28., 35. eta/edo 42. artikuluetan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu, aurkezten den dirulaguntza modalitatearen arabera.

2. Onuraduna pertsona juridikoa bada, orobat joko dira onuraduntzat lehenengo onuradunari elkarturiko beste erakunde batzuk baldin eta dirulaguntza emateko oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk erakunde haren izenean eta HAREN kontura egiteko konpromisoa badute.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE LAS SUBVENCIONES A LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES CON CARGO AL EJERCICIO 2025.

CAPÍTULO I
Disposiciones generales

Artículo 1. *Objeto de la subvención*

1. Mediante el presente decreto foral se regulan las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se conceden por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad a la realización de proyectos en materia de igualdad de mujeres y hombres con cargo al ejercicio 2025.

2. Este decreto foral regula las siguientes modalidades de subvención:
a) Subvenciones para el fortalecimiento de asociaciones de mujeres (capítulo II).
b) Subvenciones a asociaciones de mujeres para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo III).

c) Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo IV).

d) Subvenciones para proyectos transformadores cuyo objetivo sea la promoción de la igualdad de mujeres y hombres (capítulo V).

Artículo 2. *Entidades beneficiarias*

1. Para tener acceso a la subvención, la entidad solicitante deberá cumplir los requisitos previstos en los artículos 21, 28, 35 y/o 42, en función de la modalidad de subvención a la que se presente.

2. Cuando la beneficiaria sea una persona jurídica, las entidades asociadas a la entidad beneficiaria que tengan el compromiso de efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera tendrán igualmente la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

consideración de beneficiarias.

3. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuta, arau horretako 12. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakietan jasotako egoeretako batean dauden erakundeak ezin izango dira izan dirulaguntza hauen onuradun.

3. En aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la administración foral, no podrán obtener la condición de entidades beneficiarias aquellas en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la citada norma.

Horretarako, onuradun izateko 12. artikulu horren 2. eta 3. zenbakietan ezarritako debeku-egoeretako batean ere ez daudela justifikatzeko, erakundeek lekukotasun judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabili ahal izango dituzte, dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, kasuaren arabera. Agiri horren ordez, administrazioko agintari baten edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko aitorpena (egoitza elektronikoaren formularioan) aurkeztu ahal izango da.

A tal efecto, la justificación por parte de las entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiarias señaladas en los apartados 2 y 3 del mencionado precepto podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa correspondiente, o certificación administrativa, según los casos. Dicho documento podrá ser sustituido por una declaración responsable (en el formulario de la sede electrónica) otorgada ante una autoridad administrativa o notaría pública.

4. Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuz, ezin izango dira dirulaguntza hauetara aurkeztu eta haien onuradun izan foru-arau horretako 42. artikuluaren a), b) eta c) letretan adierazitako egoeretarikoren batean dauden erakundeak.

4. Asimismo, en aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de estas subvenciones aquellas entidades en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados a), b) y c) del artículo 42 de la citada norma.

5. Era berean, ezingo dira erakunde onuradun izan izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta daudenak, ezta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko edozein debekutan sartuta daudenak ere.

5. Igualmente, no podrán obtener la condición de entidades beneficiarias aquellas que se hallen incursas en un procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza, así como en cualquier prohibición del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

3. artikulua. *Laguntzak emateko araubidea*

Artículo 3. *Régimen de concesión*

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-agindu baten bitartez emango dira dirulaguntzak, lehia-konkurrentziaren araubidearen arabera: kasuan-kasuan dagokion artikuluetan ezartzen diren irizpideen arabera baloraziorik altuena lortzen duten eskabideei emango zaie dirulaguntza, baina kontuan hartuta kasu bakoitzean aurrekontuko

La concesión de la subvención se realizará mediante Orden Foral de la diputada de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en los artículos correspondientes, teniendo como límite la cuantía consignada en la



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

partidan izendatutako zenbatekoa dela muga.

correspondiente partida presupuestaria.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-diru-laguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones forales a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida según los criterios de valoración, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien diru-laguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako diru-laguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje de subvención aplicado a las mismas, hasta agotar la cuantía disponible.

4. artikulua. *Eskabideak aurkeztea eta epeak*

Artículo 4. *Presentación de solicitudes y plazos*

1. Dirulaguntza jaso nahi dute erakundeek dagokien eskabidea aurkeztu beharko dute, egoitza elektronikoan nahitaez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluak ezarritakoaren arabera:

- https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

1. Las entidades que deseen acogerse a la subvención deberán presentar la correspondiente solicitud obligatoriamente por sede electrónica, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14. 2.a. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas:

- https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, foru-dekretu hau *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2. El plazo de presentación de las solicitudes será de un (1) mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente decreto en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

5. artikulua. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak eta proiektuen betekizunak*

Artículo 5. *Documentación a presentar con la solicitud y requisitos de los proyectos*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

- https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

- https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

Ez bada erabiltzen eredu hori, eskaera ez aurkeztutzat joko da.

En caso de no utilización de dicho modelo, se tendrá dicha solicitud por no presentada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eskatzen den dokumentazioaz gain, nahitaezko dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

a) Estatutuak eta egoitza sozialaren ziurtagiria.
b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, hala badagokio.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako dokumentazioa bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta ez bada aurretiaz aurkeztu foru-aldundi honetako Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusian eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan; izan ere, kasu horretan, zehaztu beharko da zein egunetan aurkeztu zen.

c) Diruz lagundu daitekeen proiektuaren deskribapena.
Dokumentu horrek ezin du 15.000 hitz baino gehiago izan.
Proiektuak hitz-kopuru hori gainditzen badu, 15.000 hitzetarainoko edukia bakarrik baloratuko da.
Beste alde batetik, ez da baloratuko dokumentu horretan garaturik ez dagoen ezein eduki, hala nola web-orrietarako nahiz euskarri-dokumentuetarako estekak.
d) Pertsonak eta/edo erakundeak kontratatzen badira berdintasunaren arloan laguntza teknikoa eta/edo prestakuntza emateko, nahitaez izan beharko dute berdintasunaren arloko prestakuntza eta/edo esperientzia.
Berdintasunaren arloko prestakuntza emango duen eta/edo berdintasunaren arloko laguntza teknikoa emango duen pertsonari dagokionez, honela egiaztatu beharko da badituela prestakuntza-esperientzia horiek:
Gutxienez, 150 orduko prestakuntzari buruzko akreditazioa aurkeztu beharko dute, ikastetxe publiko edo pribatu batek emaniko titulazio akademikoaren bitartez, baina ikastetxe horrek administrazio eskudunaren aitorpena izan behar du baliozkotasun akademiko ofiziala duten tituluak emateko. Bestela, emakume eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez hiru urteetako lanbide-esperientzia egiaztatu beharko dute, zehaztuz zer lanek egiaztatzen duten arlo horretako gaitasuna.
Prestakuntza dela-eta eskatzen den 150 orduko gutxieneko hori balio akademiko ofiziala duen titulazio bakar bati dagokiola ulertu behar da.

Se adjuntará, además de la documentación requerida en la solicitud, la siguiente documentación preceptiva:

a) Los estatutos y acreditación del domicilio social.
b) Certificado de estar inscritos en el registro correspondiente, en su caso.

La documentación correspondiente a los apartados a) y b) habrá de entregarse siempre que la misma no hubiera sido aportada con anterioridad a la Dirección General de Igualdad de esta Institución Foral y no hubiera sufrido modificación durante los tres últimos años, en cuyo caso habrá de especificarse la fecha en la que dicha entrega se hubiera realizado.

c) Descripción del proyecto subvencionable.
La extensión máxima de este documento no podrá superar las 15.000 palabras.
En el caso en que el proyecto supere dicha extención máxima, solamente se valorará el contenido hasta las 15.000 palabras.
Por otra parte, no se valorará ningún contenido que no se encuentre desarrollado en dicho documento, tales como enlaces a páginas web u otros documentos de soporte.

d) En el caso de que se contraten personas y/o entidades para asistencia técnica en materia de igualdad y/o para impartir formación en materia de igualdad, deberán contar con formación y/o experiencia en materia de igualdad.
Dicha condición deberá acreditarse de la siguiente manera respecto de la persona que impartirá la formación en materia de igualdad y/o que llevará a cabo la asistencia técnica en materia de igualdad:
Deberán presentar acreditación de, al menos, 150 horas de formación, mediante titulación académica expedida por algún Centro de Enseñanza público o privado que tenga reconocida por la Administración competente la expedición de títulos con validez académica oficial, o bien experiencia profesional de, al menos, tres años en materia de igualdad de mujeres y hombres, especificando los trabajos que acreditan la competencia en la materia.
El mínimo requerido de 150 horas de formación se entiende referido a una única titulación con validez académica oficial.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Proiektuari lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak berariaz jasotzen diren atalean, pertsona edo erakunde eskatzaileak honako hauek hartu beharko ditu kontuan:
Diru-laguntzaren xede diren jarduerak diruzko kontraprestazioaren bidez gauzatzen badira erakunde onuradunak berak zuzenean nahiz proiektua garatzeko kontratatuko pertsonek edo erakundeek–, zenbateko horiek diru-sarreren aurrekontuaren parte izan beharko dute.

3. Erakunde eskatzaileek gehienez ere proiektu bat aurkeztu ahal izango dute dirulaguntza-lerro bakoitzeko.
Nolanahi ere, aurkeztutako lehen proiektua bakarrik baloratuko da.

Ez dira onartuko proiektu bat baino gehiagori buruzkoak diren eskabideak

4. II. kapituluko deialdira aurkezten diren erakundeek (Emakumeen elkarteak indartzeko dirulaguntzak) ezin izango dute aurkeztu dirulaguntza-eskabiderik V. kapituluan (Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburutzat duten proiektu eraldatzaileetarako dirulaguntzak).

II. eta V. kapituluetako dirulaguntzetarako eskabideak aurkezten diren kasu guztietan, ezetsi egingo da V. kapituluko dirulaguntza-eskabidea.

5. Dirulaguntza-lerro bakoitzean emandako zenbatekoen baturaren emaitza ezin izango da 30.000 eurotik gorakoa izan.

Erakunde onuradun batek 30.000 eurotik gora jaso badezake, zenbatekorik handiena duen lerroko dirulaguntza besterik ez zaio emango.

6. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bitartez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, salbu eta horien berariazko aurkakotasunik

2. En el apartado donde se recojan de manera expresa todos los gastos e ingresos asociados al proyecto, la persona o entidad solicitante deberá tener en cuenta lo siguiente:
Siempre que las actividades objeto de subvención se ejecuten con contraprestación dineraria, directamente por la entidad beneficiaria o por las personas o entidades contratadas para el desarrollo del proyecto, dichas cantidades deberán formar parte del presupuesto de ingresos.

3. Las entidades solicitantes podrán presentar un máximo de un proyecto por línea de subvención.

En todo caso, solo se valorará el primer proyecto presentado.

No se admitirán aquellas solicitudes que engloben más de un proyecto.

4. Las entidades que se presenten a la convocatoria del capítulo II (Subvenciones para el fortalecimiento de asociaciones de mujeres) no podrán presentar solicitud de subvención al capítulo V (Subvenciones para proyectos transformadores cuyo objetivo sea la promoción de la igualdad de mujeres y hombres).

Siempre que se presenten solicitudes de subvención a los capítulos II y V, procederá la desestimación de la solicitud de subvención del capítulo V.

5. El resultado de la suma de los importes concedidos en cada línea de subvención no podrá rebasar los 30.000 euros.

Cuando una entidad pudiera resultar beneficiaria de un importe superior a 30.000 euros, se le concederá únicamente la subvención de la línea cuyo importe de concesión fuera superior.

6. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, y a través de los servicios de interoperabilidad correspondientes, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas y entidades interesadas requeridos para la tramitación administrativa de las solicitudes



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

badago. Kasu horretan, aurka egiteko arrazoiak adierazteaz gain, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

presentadas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes,

Arrazoi teknikoen ondorioz ezin bada lortu informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Si por causas técnicas no fuese posible obtener la información directamente de otras administraciones públicas, la Dirección General de Igualdad podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

7. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak nahi dituen agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahalko dizkie erakunde eskatzaileei, erakundeok aurkeztu duten eskabidea ondo ebaluatu eta ebazteko.

7. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

6. artikulua. *Eskabidea zuzentzea eta espedientea artxibatzea.*

Artículo 6. *Subsanación de la solicitud y archivo del expediente*

1. Dirulaguntzen eskabideek akatsen bat badute edo osatu gabe badaude, erakunde eskatzaileari hamar (10) egun baliodunеko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, nahitaez egoitza elektronikoaren bidez, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezik, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, horretarako berariazko ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ezingo da zuzendu diruz laguntzea nahi den proiektuaren deskribapenaren dokumentua.

1. Si las solicitudes de subvención adolecieran algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos obligatoriamente por sede electrónica, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución expresa en tal sentido conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. No será subsanable el documento de descripción del proyecto.

2. Erakunde eskatzailetariko batek presentzialki aurkezten badu eskabidea, zuzendaritzak errekerimendua egingo dio, aurkezpen elektronikoaren bidez zuzen dezan. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna izango da eskabidearen aurkezpen-data.

2. Si alguna de las entidades solicitantes presenta la solicitud presencialmente, la Dirección le requerirá para que sea subsanada a través de su presentación electrónica. A estos efectos, se considerará como fecha de presentación de la solicitud aquella en la que haya sido realizada la subsanación.

7. artikulua. *Izapidetzea, ebazpena eta errekurtsoak*

Artículo 7. *Tramitación, resolución y recursos*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposa_mena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Batzorde Teknikoa eskaerak ebaluatzeaz arduratuko den kide anitzeko organoa izango da, eta egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egin beharko du.

2. La Comisión Técnica será el órgano colegiado encargado de evaluar las solicitudes, y deberá emitir informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada.

Honako hauez osatua egongo da batzorde teknikoa: Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren titularra, Genero Politiketarako eta Dibertsitaterako Idazkaritza Teknikoaren titularra eta bertako teknikariak.

La Comisión Técnica estará integrada, por la persona titular de la Dirección General de Igualdad, la Secretaría Técnica de Políticas de Género y Diversidad, y personal técnico de la misma.

3. Laguntzak emateko edo, hala badagokio, ukatzeko, foru-agindua emango du Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrak, beren-beregi eratuko den batzorde teknikoaren proposamena aintzat hartuta.

3. La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas será realizada mediante orden foral de la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a propuesta de la Comisión Técnica que se crea a tal efecto.

Era berean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira kasu bakoitzerako, baldin eta, jardueren izaera bereziagatik edo beste inguruabar batzuengatik, komenigarritzat jotzen badira dirulaguntzen xedea eta helburuak betetzeko.

Igualmente podrán establecerse condiciones particulares para cada caso cuando, por la naturaleza específica de las actividades u otras circunstancias concurrentes, se estimen convenientes para el cumplimiento de la finalidad y objetivos de las subvenciones.

4. Eskaera ezetsi egingo da, baldin eta erakunde eskatzailea ez badago Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketen egoera erregularrean.

4. Procederá la desestimación de la solicitud si la entidad solicitante no se encontrase en situación regular de pagos con la Hacienda Foral de Bizkaia y frente a la Seguridad Social.

Era berean, eskatutako dirulaguntza ezetsi egingo da, aurrekontu-esleipenean dagoen kreditua agortu delako eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez delako.

Igualmente, procederá la desestimación de la subvención solicitada por haberse agotado el crédito existente en la consignación presupuestaria, así como no alcanzar la puntuación mínima exigida.

5 . Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei (6) hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen direnetik aurrera zenbatuta. Ordurako ez bada haien gaineko ebazpen espresurik, ukatutzat joko dira dirulaguntzen eskabideok, hargatik eragotzi gabe Administrazioak espresuki ebazteko duen eginbeharra.

5 . El plazo máximo para la resolución y notificación de las solicitudes será de seis (6) meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes, considerándose desestimadas las peticiones de subvención si no recayera resolución expresa a dicha fecha, sin perjuicio de la obligación de la administración de resolver expresamente las mismas.

6. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetako interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean*

6. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las interesadas a los efectos de esta convocatoria pública mediante



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

argitaratuko da. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko da.

publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». También se comunicará mediante comparecencia en sede.

7. Organo eskudunak prozeduraren ebazpenaren foru-agindua jakinarazi ondoren, erakunde onuradunak hamar (10) eguneko epea izango du ebazpena onartzeko, eta epe hori adierazpen espresurik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

7. Notificada la orden foral de resolución del procedimiento por el órgano competente, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de diez (10) días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

8. Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena administrazio-bidea agortuko du.

8. La resolución por la que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada agota la vía administrativa.

Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek ebazpena eman duen organoari, hilabete bateko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkaratu dezakete Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi (2) hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 2015eko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezartzen den moduan. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

Contra la resolución, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que los hubiere dictado en el plazo de un (1) mes contado a partir desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, o impugnarlos directamente ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación de la misma, en los términos contemplados en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

8. artikulua. *Dirulaguntza ordaintzea*

Artículo 8. *Pago de la subvención*

1 . Behin ezarritako prozeduraren arabera onetsirik dirulaguntzak, eta prozeduraren ebazpena jakinarazten denetik gutxienez hamar (10) eguneko epea igarota, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100 izapidetuko da.

1 . Una vez aprobadas las subvenciones conforme al procedimiento establecido, y transcurrido el plazo mínimo de diez (10) días a contar desde la notificación de la resolución del procedimiento, se procederá a tramitar el 100% del importe de la subvención concedida.

2. Dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileek nahitaez bete behar dituzte beren zerga-betebeharrak, Zuzenbide Publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Baldintza hori eskaera aurkezten denean bete behar dute, eta berdin jarraitu dirulaguntza ematen denean, betebeharra aitortzen denean eta ordainketa egiten denean ere. Hori guztia espedientean justifikatuko da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedaturikoarekin bat.

2. La concesión y el pago de las subvenciones quedan condicionados al cumplimiento por parte de las entidades de sus obligaciones tributarias y demás de Derecho Público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá concurrir en el momento de la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que se justificará en el expediente de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

3. Era berean, erakunde onuradunei dirulaguntza eman eta, hala behar denean, ordaintzeko,

3. Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las subvenciones



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezinbestekoa izango da amaituta egotea Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunaren arloan emandako dirulaguntzak direla-eta hasitako itzulketa-prozedura edo zehapen-prozedura guztiak.

quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las subvenciones en materia de igualdad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia, se halle todavía en tramitación.

9. artikulua. *Erakunde onuradunen betebeharrak*

Erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Helburua betetzea eta dirulaguntza emateko oinarri den proiektua gauzatzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo baliatzeko ezarritako helburua bete dela ere.

c) Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta harekin lankidetzan aritzea. Horretarako, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-ekintzak egin ahal izango ditu, dekretu honen bidez lortu nahi diren helburuak betetzen direla bermatzeko.

d) Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak proiektua dela-eta eskatzen duen informazio guztia ematea.

e) Erakundearen ordezkari bat (1) izendatzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan egin ahal diren jarduera eta/edo bileretarako.

f) Diruz lagundutako proiektuan egiten den edozein aldaketaren berri ematea, bai eta garatu beharreko jardueren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ere.

g) Foru-dekretu honetan eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea, eta, bereziki, jasotako funtsen erabileraren frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketen xede izan baitaitezke.

h) Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoa betez (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore

Artículo 9. *Obligaciones de las entidades beneficiarias*

Las entidades beneficiarias vendrán obligadas a:

a) Cumplir el objetivo y ejecutar el proyecto que fundamente la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse y colaborar con las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, a cuyo efecto la Dirección General de Igualdad podrá realizar las acciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de las finalidades perseguidas por este decreto.

d) Aportar toda la información relacionada con el proyecto que requiera la Dirección General de Igualdad.

e) Desginar a una (1) persona representante de la entidad para las actuaciones y/o reuniones que pudieran llevarse a cabo en colaboración con la Dirección General de Igualdad.

f) Comunicar cualquier modificación que se realice en el proyecto subvencionado, así como cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades a desarrollar.

g) Cumplir las obligaciones que se establecen en este decreto foral y en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en particular, la de conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) En cumplimiento de lo establecido en los artículos 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), elkarte edo erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, eta bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei jardueraren berri emateko erabiltzen diren liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan.

i) Zabalkunde, hedapen edo argitalpenen xede diren eta diruz lagunduta dauden jardueretan, berariaz adierazi beharko da Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu duela, logotipoa eta Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren logotipoa gehituz. Logotipo horiek Zuzendaritzak emango ditu.

j) Era berean, erakundeek Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi eta bidali beharko diote jardueraren antolaketari buruzko informazioa, non, noiz eta zer ordutan egin den adieraziz, eta kartelak eta/edo zabalkunderako beste dokumentu batzuk eta garrantzitsua den informazio guztia bidali beharko dute, aurretik.

k) Erakunde onuradunek Berdintasunerako Legearen testu bateginan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako printzipio orokorrak bete beharko dituzte beren jardueretan.
Gauzak horrela, agiri guztietan, publizitatean, irudietan eta materialetan hizkuntzaren erabilera sexista eta emakumeen irudi bereizkeriazkoa edo estereotipo sexistak saihestu behar ditu, eta irudi egokia sustatu, balio zuzenak islatzen dituena: berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, ardura partekatua eta rolen nahiz genero-identitateen aniztasuna.
Halaber, sexuaren/generoaren eta adinaren arabera bereizitako datuak jaso beharko dituzte justifikazio-jardueraren memorian. Datuak banakatu ahal izango dira garrantzitsutzat jotzen diren beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera (dibertsitate funtzionala/desgaitasuna, adina, jatorria/administrazio-egoera, etab.).

l) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan araututakoarekin bat, erakunde onuradunak nahitaez bete

ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral, las asociaciones o entidades beneficiarias deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada y utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

i) En las actividades subvencionadas que sean objeto de divulgación, difusión o publicación, hacer constar expresamente la existencia de financiación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia mediante la incorporación de su logotipo, así como del logotipo de la Dirección General de Igualdad. Dichos logotipos los proporcionará la Dirección.

j) Asimismo, las entidades tendrán la obligación de comunicar y enviar a la Dirección General de Igualdad la información relativa a la organización de la actividad, indicando lugar, fecha, hora, y remitiendo cartelería y/u otros documentos de difusión y toda la información que sea relevante, con anterioridad a la misma.

k) Las entidades beneficiarias deberán cumplir en sus actividades con los principios generales establecidos tanto en el texto refundido de la Ley para la Igualdad como en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
Así, toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.
También deberán incluir datos diferenciados por sexo/género y edad en la memoria de actividad justificativa. Podrán desglosarse los datos atendiendo a otros ejes de desigualdad que se consideren relevantes (diversidad funcional/discapacidad, edad, origen/situación administrativa, etc.).

l) De conformidad con lo regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la entidad beneficiaria

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharko ditu II. tituluan jasotako publizitate aktiboaren eskakizunak, baldin eta 2. artikuluan aipatutako kasuetako batean badaude: aurrekontu-ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurora iristen diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko diru-sarrera guztien ehuneko 40 foru-laguntza edo -dirulaguntza publikoak badira, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen direnean.

m) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du, ahal duen neurrian, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak kentzen laguntzeko, dekretu honekin lotuta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduerei dagokienez. Halaber, erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du erakundearen baliabideen erabilera jasangarria egiteko.

n) Era berean, 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, erakunde onuradunak hiru hornitzaile desberdini eskatu beharko dizkio eskaintzak gutxienez, diruz lagun daitekeen gastua, obra gauzatzeagatik sortua, 40.000 eurotik gorakoa denean, edo 15.000 eurotik gorakoa denean, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresek ekipamenduez hornitzeagatik edo zerbitzuak emateagatik denean.
Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren beregi justifikatu behar da memorian, proposamen merkeena egin duena hautatu ezean.

10. artikulua. *Jarduerak egitea eta justifikatzea*
1. Proiektuak gehienez ere 12 hilabeteren buruan gauzatu behar dira, dirulaguntzak emateko foru-agindua *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*ean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Dirulaguntzak justifikatzeko gehieneko epea hilabete bat (1) izango da, aurreko atalean adierazitako gauzatze-epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta (gehienez ere 12 hilabete, dirulaguntzak emateko foru-agindua *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*ean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II, siempre y cuando se encuentre en alguno de los supuestos mencionados en el artículo 2: entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

m) La entidad beneficiaria se compromete, en la medida de sus posibilidades, a colaborar con la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en relación con los servicios, eventos o actividades que se organicen relacionados con el presente decreto. Asimismo, la entidad beneficiaria se compromete a hacer un uso sostenible de los recursos de la entidad.

n) En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 15.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica.
La elección entre las ofertas presentadas, deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Artículo 10. *Ejecución de las acciones y justificación*
1. Los proyectos deberán ejecutarse en un plazo máximo de doce (12) meses a contar desde el día siguiente a la publicación de la orden foral de concesión de las subvenciones en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

2. El plazo máximo para su justificación será de un (1) mes a contar desde el día siguiente al fin del plazo máximo de ejecución mencionado en el apartado anterior (doce (12) meses a contar desde el día siguiente a la publicación de la orden foral de concesión de las subvenciones en el «Boletín Oficial de Bizkaia»).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

11. artikulua. *Justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa*

1. Dirulaguntza justifikatzeko, artikulu honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, eta egoitza horretan eskura dauden eredu ofizialak erabiliz.

Ez badira erabiltzen eredu horiek, justifikazioa ez aurkeztutzat joko da.

- https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

2. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek proiektuaren zenbateko osoa justifikatu beharko diote Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, zeharkako kostuak izan ezik.
Kofinantziazioa izanez gero jarraian adierazten diren kapituluetako dirulaguntzetan, egoitza elektronikoaren formularioaren bitartez justifikatuko dira diru-sarreren iturria, zenbatekoa eta helburua: II. kapitulua (Emakumeen elkarteak indartzeko dirulaguntzak), III. kapitulua (Emakumeen elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko) eta IV. kapitulua (Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko).

3. Egindako proiektuaren justifikazio-memoriak honako atal hauek ditu:

a) Jardueraren memoria. Proiektuaren garapenari eta balorazioari buruzko datuak biltzen ditu. Atal honetan sartuko dira, halaber, proiektuan erabili diren publizitatea eta materialak, hau da, diruz lagundutako proiektua hedatzeko eta zabaltzeko landutako elementuak, non Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetza jaso behar den. Proiektua ikerketa-proiektu bat bada, horren kopia bat ere sartuko da, euskarri digitalean.

b) Garatutako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa. Egoitza elektronikoaren formularioaren bitartez justifikatuko da.
Diruz lagundutako proiektua dela-eta egindako gastu guztiak zerrendatuko dira, honako datu hauekin: hartzekoduna eta dokumentua,

Artículo 11. *Documentación a presentar con la justificación*

1. La subvención concedida se justificará mediante la presentación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de la documentación recogida en el presente artículo.
Los modelos oficiales para su cumplimentación y presentación estarán disponibles en la sede electrónica.
En caso de no utilización de dichos modelos, se tendrá dicha justificación por no presentada.

- https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las entidades subvencionadas deberán justificar ante la Dirección General de Igualdad el importe total del proyecto, excepto los costes indirectos.

En caso de cofinanciación respecto de las subvenciones de los capítulos II (Subvenciones para el fortalecimiento de asociaciones de mujeres), III (Subvenciones a asociaciones de mujeres para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres) y IV (Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres), la fuente de ingresos, cuantía y finalidad, se justificará a través del formulario de la sede electrónica.

3. La memoria justificativa del proyecto realizado incluye los siguientes apartados:

a) Memoria de actividad. Incluye datos sobre el desarrollo y valoración del proyecto. También se incluirán en este apartado la publicidad y materiales que se hayan utilizado en el proyecto, es decir, los elementos elaborados para la difusión y divulgación del proyecto subvencionado, donde debe constar la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia y de la Dirección para la Igualdad. En caso de que el proyecto consista en un proyecto de investigación, se incluirá también una copia del mismo en soporte digital.

b) Memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas. Se justificará a través del formulario de la sede electrónica.
Incluirá una relación de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, eta dagokion jarduera edo jarduerak.

Jarduera finantzatzeko lortutako beste diru-sarrera batzuen zerrenda ere jaso beharko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Era berean, justifikatu beharko dira dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeagatik erakunde onuradunak edo proiektua garatzeko kontratatutako pertsonek edo erakundeek zuzenean jasotako diru-kontraprestazioak.

c) Lokomozio-gastuen justifikazio-dokumentua. Dokumentua bete eta aurkezteko eredu ofiziala eskuragarri egongo da egoitza elektronikoan.

d) Diruz lagundutako proiektua dela-eta egindako gastu guztien fakturak edo egiaztagirien kopia soilak, eskaneatuta, zeharkako gastuei dagokien % 10a izan ezik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzari egotzitako faktura guztiak erantsi beharko dira. Fakturak proiektua gauzatzen den urte naturalen barruan jaulki beharko dira, eta ekintzak justifikatzeko epea amaitu baino lehen ordaindu beharko dira.

e) Dekretu honen 9 n) artikuluaren kasuan, aurkeztutako eskaintzen artean hautatzea, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera, eta berariaz justifikatu beharko da hautaketa-memoria batean, proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean.

4. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

12. artikulua. *Ez-betetzeak eta itzultzeak*

1. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek dekretu honetan, emate-ebazpenean edo gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badute edo, halaber, baldin eta justifikazioa egiteko betebeharra osorik edo zati baten ez badute betetzen, kasuan kasu egokia izango den itzultzeko prozedurari ekingo zaio, eta erakunde onuradunek derrigorrez itzuli beharko dituzte, hala osorik nola zati baten, jaso dituzten zenbateko horiek eta baita horiei dagozkien berandutza korrituak ere, egokiak izango diren

emisión y fecha de pago y actividad o actividades a que corresponde.

También deberá incluir la relación de otros ingresos obtenidos para la financiación de la actividad, indicando el importe y su procedencia.

Asimismo, deberán justificarse las contraprestaciones dinerarias recibidas, directamente por la entidad beneficiaria o por las personas o entidades contratadas para el desarrollo del proyecto, por la ejecución de las actividades objeto de subvención.

c) Documento de justificación de los gastos de locomoción. El modelo oficial estará disponible para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica.

d) Las facturas o copia simple de los justificantes, escaneadas, de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado, exceptuando el 10% correspondiente a costes indirectos.

Deberán adjuntarse todas las facturas imputadas a la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia. Las facturas deberán estar emitidas dentro de los años naturales de ejecución del proyecto y deberán ser abonadas antes de la finalización del plazo para la justificación de las acciones.

e) En el supuesto del artículo 9 n), la elección entre las ofertas presentadas conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

4. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria.

Artículo 12. *Inclumplimientos y reintegros*

1. En el supuesto de que las entidades beneficiarias de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones establecidas en el presente decreto o en la resolución de otorgamiento y demás normativa de aplicación, así como en el supuesto de que incumplieran total o parcialmente la obligación de justificación, se instruirá el correspondiente procedimiento de reintegro, quedando las entidades beneficiarias obligadas a la devolución total o parcial de las cantidades percibidas con sus correspondientes intereses de demora, sin perjuicio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gainerako ekintzak gorabehera. Kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira.

de las demás acciones que procedan. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos.

2. Dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidezkotasuna erabakitzen den datara arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu hauetan:

2. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de intereses de demora previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se aprueba la procedencia del reintegro, parcial o total, en los siguientes casos:

a) Dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatuz jaso bada dirulaguntza.

b) Proiektuaren helburua erabat, zati batean edo epez kanpo ez betetzea, edo dirulaguntza ematea eragin duen jokabidea ez hartzea.

Ez-betetzea egongo da, baldin eta, diruz lagundutako ekintzak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro ondoren, ekintza horien gauzatze osoa aurreikusitako moduan egiaztatu eta justifikatu ez bada, edo egindako eta justifikatutako gastua dirulaguntza emateko foru-aginduan onartutako kostua baino txikiagoa izan bada.

Hala ere, halakoetan betetzat ematen badira dirulaguntzen helburua eta xedea, bada, berriro doituko da dirulaguntzaren zenbatekoa, benetan justifikatu eta/edo burututako dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera. Horretarako, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugen araberako proportzionaltasun-irizpidea deritzona erabiliko da.

Bestetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko foru arauaren Erregelamenduaren 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketak egon direla, eta aldaketa horiek ebazpena aldatzea eragin ahal zutela eta aldaketak onartzeko aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea bete gabe egin direla, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onar dezake, betiere onartze horrek hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie; hala ere, horrek ez du salbuetsiko onuraduna dirulaguntzen foru

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total, parcial o extemporáneo del objetivo del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

Existirá incumplimiento si, transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista o en el supuesto de que el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al coste aprobado en la orden foral de concesión.

No obstante, si en estos supuestos se entienden cumplidas la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados y/o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

Asimismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

corresponder con arreglo a la Norma Foral de Subvenciones.

c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez justifikatzea.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.

d) Indarrean dagoen arautegian jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.

d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en la normativa vigente.

e) Indarreko araudian aurreikusitako finantza-egiaztapen eta -kontroleko jarduketei aurka egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo dokumentu-kontserbazioko betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako funtsen erabilera, helburua betetzen dela, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak pilatzen direla, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la normativa vigente, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

f) Administrazioak erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta dirulaguntza ematerakoan beren gain hartutako konpromisoak ere, betiere helburuak lortzeko, jarduera gauzatzeko, proiektua gauzatzeko edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea hartzeko moduari eragiten badiote edo horri buruzkoak badira.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

g) Dirulaguntza ematerakoan Administrazioak erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak eta eurek hartu dituzten konpromisoak ez betetzea (aurreko kasuak ez direnak), baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu diruari zer erabilera eman zaion, dirulaguntzaren helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide gehiago dituen, beste administrazio batek, erakunde pribatu nahiz publikoek (estatukoak, Europako Batasunekoak nahiz nazioarteko erakundeak) emanak.

g) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los anteriores, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

h) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikulutik 109.era bitartean xedatutakoa dela bide, dirulaguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzea.

h) La adopción, en virtud de lo establecido en los artículos 107 a 109 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, de una decisión de la cual se derive una necesidad de reintegro.



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

i) Dekretu honetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako gainerako kasuetan.

3. Itzultzeko prozedura Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak hasi eta izapidetuko du, eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrak ebatziko du, erakunde onuradunari entzun ondoren.

Arau aplikagarriak ez betetzeagatik emandako dirulaguntzak itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea hamabi (12) hilabetekoa izango da, prozedura hasten den egunetik zenbatzen hasita.

13. artikulua. *Erakunde onuradunaren ekimenez dirulaguntza itzultzea*

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, borondatezko itzulketatzat hartzen da erakunde onuradunak Administrazioaren aldez aurreko errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Erakunde onuradunak berak eskatuta, foru-dirulaguntza itzultzeko, dagokion ordainketa-gutuna aurkeztu beharko da.

14. artikulua. *Ebazpena aldatzea*

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eta aldaketaren bat gertatzen bada dirulaguntza ematean kontuan harturiko baldintzetan teknikoki ezinezkoa delako diruz lagundutako jarduerak ebazpenean adierazi zen moduan egitea, erakunde onuradunak ebazpena aldatzeko eskatu beharko du, arrazoitzat emanik aldaketak egin direla hasieran aurkeztutako aurrekontuan (baldin eta ez badira % 10 baino gehiago) edo proiektuan. Halakoetan, aukera izango da aldaketa baimentzeko, ez bazaie kalterik egiten hirugarrenen eskubideei.

Aldaketa eskatzeko eskabidea egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da.

Bederatzi (9) hilabeteko epea izango da gehienez ere aldaketa-eskaerak aurkezteko, dirulaguntzak

i) En los demás supuestos previstos en el presente decreto y normativa vigente.

3. El procedimiento de reintegro se iniciará y tramitará por la Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y será resuelto por la persona titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, previa audiencia a la entidad beneficiaria.

El plazo máximo para resolver el procedimiento para la devolución de las subvenciones concedidas por incumplimiento de las normas aplicables será de doce (12) meses a partir de la fecha de su iniciación.

Artículo 13. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

Cuando se produzca la devolución voluntaria, la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago.

Artículo 14. *Modificación de la resolución*

Una vez recaída resolución de concesión, y en el supuesto de que se produzca una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención por imposibilidad técnica para realizar las actividades subvencionadas en las condiciones de la resolución, la entidad beneficiaria deberá solicitar la modificación de la resolución, motivada por cambios en las partidas del presupuesto (siempre y cuando sean superiores al 10%), o proyecto presentado inicialmente, que podrá ser autorizada siempre que no dañe derechos de terceras personas.

La solicitud de modificación de la subvención deberá presentarse a través de la sede electrónica.

La solicitud de modificación se podrá presentar hasta un plazo máximo de nueve (9) meses, a contar desde

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

emateko foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

15. artikulua. *Dirulaguntzen bateragarritasuna*

1. Deialdi honetako hiru kapitulutako dirulaguntzak bateragarriak dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, nahiz eta eskatzaileek egitate berengatik lortu lehen edo etorkizunean laguntzok. Hona zer hiru kapitulu diren: II. kapitulua (Emakumeen elkarteak indartzeko dirulaguntzak), III. kapitulua (Emakumeen elkarteentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko) eta IV. kapitulua (Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko).

Halere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak berak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Dirulaguntza horien zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza edo ekarpen batzuekin batera; bestela, aldea itzuli egin beharko da.

Horretarako, erakunde onuradunek Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dizkiote egitate berberengatik beste erakunde batzuetatik jaso dituzten edo jaso ditzaketen dirulaguntzak.

2. V. kapituluko dirulaguntzak (Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburutzat duten proiektu eraldatzaileetarako dirulaguntzak) ez dira bateragarriak Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, eskatzaileek egitate berengatik lehen lortuak izan, nahiz etorkizunean lortu.

Era berean, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko

el día siguiente a la publicación de la orden foral de concesión de las subvenciones en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 15. *Compatibilidad de subvenciones*

1. Las subvenciones de los capítulos II (Subvenciones para el fortalecimiento de asociaciones de mujeres), III (Subvenciones a asociaciones de mujeres para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres) y IV (Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro para proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres), son compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener.

No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

Dichas subvenciones no podrán ser de tal cuantía que de forma aislada o en concurrencia con otras subvenciones o aportaciones superen el coste de la actividad subvencionada, debiendo reintegrarse la diferencia en caso contrario.

A tal fin, las entidades beneficiarias deberán informar a la Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad las subvenciones que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener de otros organismos.

2. Las subvenciones del capítulo V (Subveciones para proyectos transformadores cuyo objetivo sea la promoción de la igualdad de mujeres y hombres) no son compatibles con las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, que por los mismos hechos hayan obtenido o puedan obtener.

Asimismo, tampoco serán compatibles con otras

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Aldundiak berak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

16. artikulua. *Jarduerak azpikontratatzea*

5/2005 Foru Arauaren 27. eta 29. artikuluekin bat, lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 90 izango da gehienez ere onartuko den azpikontratazio-portzentajea (zenbatekoaren % 100, zeharkako kostuei dagokien % 10 izan ezik).

Hala ere, berdintasunaren arloan laguntza teknikoa emateko edo prestakuntza emateko pertsonak eta/edo erakundeak kontratatzeko gehienez onar daitekeen azpikontratazioaren ehunekoa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 75 izango da.

Artículo 16. *Subcontratación de actividades*

El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90% del importe de la actividad subvencionada (100% del importe, exceptuando el 10% correspondiente a costes indirectos), de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

No obstante, el porcentaje máximo de subcontratación admisible para la contratación de personas y/o entidades para asistencia técnica en materia de igualdad o para impartir formación, será del 75% del importe de la actividad subvencionada.

17. artikulua. *Zehapen-araubidea*

Erakunde onuradunak indarreko araudian aurreikusitako arau-hausteren bat egiten badu, zehapen-espedientea irekiko da, eta zehapena ezarriko zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eta Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmena arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta 5/2005 Foru Arauan ezarritakoarekin bat.

Artículo 17. *Régimen sancionador*

La comisión por parte de la entidad beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en la normativa vigente será sancionada, previa incoación de expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, según lo establecido en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, del Gobierno Vasco, por la que se regula la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas y en la Norma Foral 5/2005.

18. artikulua. *Datu pertsonalen babesa*

1. Pertsona interesdunak emandako datuak foru-dekretutik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenean, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Europako araudia egokitzen eta osatzen duen eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera.

2. Datu horiek ez dira inola ere hirugarren alderdiei tratatuko edo lagako, ez bada ukitutako pertsonaren zalantzarik gabeko baimenarekin, edo

Artículo 18. *Protección de datos de carácter personal*

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) número 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DCF5-VFHZ-DC88-K9XE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lehen adierazitako araudian aurreikusitako kasuetan.

o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Aipatutako araudian xedatutakoa betez, interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatu ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko («ahazteko eskubidea»), aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramangarriak izateko eskubideak, eta tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko eskubideak, profilak egitea barne, baldin eta tratamendu horretan ondorio juridikoak baditu edo antzeko eragina badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du.

3. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión («derecho al olvido»), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento.

Era berean, eskubidea du Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan erreklamazio bat aurkezteko, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

19. artikulua. *Araudi orokorra*

Artículo 19. *Normativa general*

Dekretu honetan ezarritako dirulaguntzak dekretu honetan eta dirulaguntza emateko foru-aginduetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

